EGITURAK
ESTRUCTURAS

Foruko Administrazio Sektore Publikoko Erakundeen Gastuak Programen arabera sailkatzea

Programen arabera izaerari jarraiki gastuak behar bezala sailkatzeko kode honetan xedatutakoari erreparatuko zaio.

Gasturen bat gastu-politika bati baino gehiagori aplika badakioke, helburuak eta xedeak kontuan hartuta egokienari egotziko zaio.

Xede horrez, aurrekontu-kudeaketaren irizpide kualitatiboak eta kuantitatiboak hartuko dira kontuan.

Kode hauek itxiak eta nahitaezkoak dira beren gastu arloen mailatan, gastu politikatan eta programa multzoetan. Programa eta azpiprogramei dagokienez, irekitzat jotzen da, kode honetan jasotzen ez diren neurrian.

1. gastu arloa.- Oinarrizko zerbitzu publikoak

Arlo honetan oinarrizko zerbitzu publikoek sortutako gastu guztiak sartzen dira, ezinbestez Bizkaiko Foru Aldundiak eskaini behar baditu, indarreko araudiaren arabera.

Ildo horri jarraiki, bakoitzerako zehaztutako baldintzetan oinarrizko lau gastu politika sartzen dira: hiri mugikortasuna eta segurtasuna, etxebizitza eta hirigintza, erkidegoaren ongizatea eta ingurumena.

Arlo honetan gastu politika sektorialak ez dira kontuan hartuko, egitura honen bestelako gastu arloetan baitaude.

Clasificación por Programas de los Gastos de las Entidades del Sector Público Administrativo Foral.

Para la correcta clasificación de los gastos según su naturaleza por programas se estará a lo que se determina en este código.

Si algún gasto fuese susceptible de aplicarse a más de una política de gasto, se imputará a aquella que se considere más adecuada en relación con el conjunto de objetivos y finalidades definidos.

A tales efectos, se podrán tener en cuenta tanto criterios cualitativos como cuantitativos de la gestión presupuestaria.

La presente codificación tiene carácter cerrado y obligatorio en sus niveles de áreas de gasto, políticas de gasto y grupos de programas. Por lo que se refiere a programas o subprogramas, se considera abierto, en tanto no se recojan en este código.

Área de gasto 1.- Servicios públicos básicos

Comprende esta área todos aquellos gastos originados por los servicios públicos básicos que, con carácter obligatorio, debe prestar la Diputación Foral de Bizkaia, con arreglo a la normativa en vigor.

A estos efectos, se incluyen, en los términos que se exponen para cada una de ellas, cuatro políticas de gasto básicas: seguridad y movilidad ciudadana, vivienda y urbanismo, bienestar comunitario y medio ambiente.

En esta área no se consideran aquellas políticas de gasto de carácter sectorial y que, en consecuencia, integran otras áreas de gasto de la presente estructura.

13. gastu-politika.- Segurtasuna eta babes zibila

Babes eta defentsa zibilarekin zerikusia duten zerbitzuen gastu guztiak sartzen dira. Halaber, hondamendien edo ezbeharren kasuan jarduerak, suteak prebenitu eta itzaltzea, salbamendua eta, oro har, erakundearen eta partikularren ondasunak babestera bideratutako ekintzak sartuak daude.

Hiru programa multzo tipifikatzen dira eta zuzenean herritarren segurtasunari eta babes zibilari lotutako administrazioaren gastu orokorrak estaltzeko direnak bereizten dira. Aurrekoaren harira, administrazio orokortzat jotzen dira gastuaren politika osatzen duten zuzendaritza zentro ezberdinei laguntzeko funtzioak planifikatu, koordinatu, kontrolatu, antolatu, administratiboki kudeatu eta garatzera bideratutako jarduerak.

130. Segurtasuna eta babes zibila orokorrean administratzea.

135. Babes zibila.

136. Suteak prebenitu eta itzaltzeko zerbitzua nahiz salbamendua.

15. gastu-politika.- Hirigintza

Hirigintzarekin zerikusia duten zerbitzuen gastu guztiak sartzen dira, baita horiekiko osagarriak ere.

Ildo horri eutsiz, beraz, lurzoruaren plangintzari eta hirigintza-araubideari lotutako gastuak egotziko zaizkio, antzeko izaera duten bestelakoekin batera.

Bi programa multzo tipifikatzen dira eta zuzenean hirigintza politika garatzearekin zerikusia duten gastu orokorrak estaltzeko direnak bereizten dira.

Política de gasto 13.—Seguridad y Protección Civil

Comprende todos los gastos de los servicios relacionados con los servicios de protección y defensa civil, actuaciones en caso de calamidades o catástrofes, prevención y extinción de incendios, salvamento, y acciones en general destinadas a la protección de los bienes de la entidad o de los particulares.

Se tipifican tres grupos de programas, distinguiéndose aquellos que tienen por finalidad la cobertura de gastos generales de administración asociados directamente a los servicios de seguridad ciudadana y protección civil. A estos efectos, se entiende por administración general las actividades dirigidas a la planificación, coordinación, control, organización, gestión administrativa y desarrollo de funciones de apoyo de los distintos centros directivos que integran la política de gasto.

130. Administración general de la seguridad y protección civil.

135. Protección civil.

136. Servicio de prevención y extinción de incendios, y salvamento.

Política de gasto 15.—Urbanismo

Se incluyen todos los gastos de los servicios relacionados con el urbanismo, así como de los complementarios de éstos.

Así, pues, se imputarán a ella los gastos derivados del planeamiento y régimen urbanístico del suelo y otros de naturaleza análoga.

Se tipifican dos grupos de programas distinguiéndose aquellos que tienen por finalidad la cobertura de gastos generales de administración asociados directamente al desarrollo de la política urbanística:

150. Hirigintzaren administrazio orokorra.

151. Hirigintza: plangintza, kudeaketa, gauzatzea eta hirigintza diziplina.

16. gastu politika.- Erkidegoaren ongizatea

Jarduera eta zerbitzu guztiei buruzko gastuak sartzen dira, oro har, bizi kalitatea hobetzeko badira.

Horri egotziko zaizkio honako zerbitzuak eraiki, mantendu, kontserbatu eta funtzionaraztearen ondoriozkoak: edateko uraren hornidura, zaborrak deuseztatu eta tratatzea eta erkidegoaren ongizaterako bestelako zerbitzuak. Bi programa multzo tipifikatzen dira:

161. Edateko uraren hornidura.

162. Hondakinen tratamendua.

17. gastu-politika.- Ingurumena

Gastuaren politika honetan ingurumena babestu eta hobetzeko gastu guztiak sartuko dira, baita ondorengo zerbitzuen funtzionamendu eta inbertsioari buruzkoak ere: natur ingurunea babestea, basoa berriz landatzea (erakundeak edo beste herri administrazio batekin partzuergoak egina), basoak suteen kontra defendatzea, mugak zehaztu eta mugarriak jartzea edo basamortu bihurtzearen kontra borrokatzea, hondartzak mantentzea eta antzeko izaerako bestelakoak.

Lau programa multzo tipifikatzen dira:

170. Ingurumenaren administrazio orokorra.

172. Ingurumena babestu eta hobetzea.

173. Hondartzak.

179. Bestelako jarduerak.

150. Administración general de urbanismo.

151. Urbanismo: planeamiento, gestión, ejecución y disciplina urbanística.

Política de gasto 16.—Bienestar comunitario

Comprende todos los gastos relativos a actuaciones y servicios cuya finalidad es la mejora de la calidad de vida en general.

Se imputarán a ella los derivados de la construcción, mantenimiento, conservación y funcionamiento de los servicios de abastecimiento de agua potable; eliminación o tratamiento de basuras; y otros servicios de bienestar comunitario. Se tipifican dos grupos de programas:

161. Abastecimiento de agua potable.

162. Tratamiento de residuos.

Política de gasto 17.—Medio ambiente

Se incluirán en esta política de gasto todos los gastos relativos a la protección y mejora del medio ambiente así como los de inversión y funcionamiento de los servicios de protección del medio natural; repoblación forestal, realizada por la propia entidad o en consorcio con otras administraciones públicas; defensa contra incendios forestales, deslinde y amojonamiento o lucha contra la desertización; mantenimiento de playas y otros de naturaleza análoga.

Se tipifican cuatro grupos de programas:

170. Administración general del medio ambiente.

172. Protección y mejora del medio ambiente.

173. Playas

179. Otras actuaciones

2. gastu arloa.- Gizarte babes eta sustapenerako jarduerak

Arlo edo multzo honetan gastu eta transferentzia guztiak sartzen dira aurreikuspenaren araubiderako, funtzionarioen pentsioetarako, ongintzazko eta laguntzako arretetarako, behar bereziak dituzten taldeei (hala nola gazteak, pertsona desgaituak eta mendekoak) arreta eskaintzeko, enplegu neurriak sustatzeko.

21. gastu-politika.- Pentsioak

Eskertzeko pentsioak, pentsioen hobekuntzak eta ohiz kanpoko pentsioak erakundearen kargura, funtzionarioenak eta lan-kontratuko langileenak, beren eskubideak eta bestelako antzeko gastuak; kotizazio gabeko pentsioak talde gutxietsientzat eta behar bereziak dituztenentzat.

Bi programa multzo tipifikatzen dira:

211. Pentsio osagarriak.

212. Kotizazio gabeko pentsioak

22. gastu politika.- Bestelako prestazio ekonomikoak langileen alde

Halako gastu guztiak sartzen dira, baita langileen aldeko gizarte ekintzaren ondoriozkoak ere, mutualitate eta Gizarte Segurantzari buruz enplegu-emailearen kargura doazen kuotak izan ezik.

Programa multzo bat tipifikatzen da:

221. Bestelako prestazio ekonomikoak langileen alde.

Área de gasto 2.—Actuaciones de protección y promoción social

Se incluyen en esta área o grupo todos aquellos gastos y transferencias que constituyen el régimen de previsión; pensiones de funcionarios, atenciones de carácter benéfico-asistencial; atenciones a grupos con necesidades especiales, como jóvenes, personas con discapacidad y dependientes; medidas de fomento del empleo.

Política de gasto 21.—Pensiones

Pensiones graciables, mejoras de pensiones y pensiones extraordinarias a cargo de la entidad, de funcionarios y personal laboral o sus derechohabientes y otros gastos de naturaleza similar; pensiones no contributivas destinadas a colectivos desfavorecidos y con necesidades especiales

Se tipifica dos grupos de programas:

211. Pensiones complementarias.

212. Pensiones no contributivas

Política de gasto 22.—Otras prestaciones económicas a favor de empleados

Comprende todos los gastos de este tipo, así como los derivados de la acción social a favor de los empleados, excepto las cuotas a cargo del empleador de mutualidades y Seguridad Social.

Se tipifica un grupo de programas:

221. Otras prestaciones económicas a favor de empleados.

EGITURAK
ESTRUCTURAS

23. gastu politika.- Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena

Gastuaren politika honi egotziko zaizkio erakundeak hurrengoetan egindako gastuak: gizarte laguntza aditua garatzea, genero berdintasuna bultzatzea, gazteria sustatzea, baztertuak sustatu eta gizarteratzea nahiz gizarte zerbitzuak kudeatzea, mendekotasunak dituzten pertsonei zerbitzuak eta gizarte laguntza eskaintzea, gizarteak baztertzeko arriskua duten edo egoera horretan dauden pertsonei arreta eskaintzea. Halaber, helburu horiek lortzen lankidetzan diharduten erakunde eta familiei transferentzia finalistak sartuko dira.

Administrazio orokorrari dagozkion gastuak sartuko dira. Horiek gastuaren politika osatzen duten zuzendaritza zentro ezberdinen plangintza, koordinazio, kontrol, antolaketa, administrazio kudeaketa eta laguntza-funtzioen garapenera bideratutako jarduerak dira.

Hiru programa multzo tipifikatzen dira:

230. Gizarte zerbitzuen administrazio orokorra.

231. Gizarte Ekintza.

232. Gizarte sustapena.

24. gastu politika.- Enplegua sustatzea

Gastuaren politika honi berezko ekintzetan edo beste herri administrazio batzuekin lankidetzan enpleguaren sustapena xede duten horiek egozten zaizkio.

Programa multzo bat tipifikatzen da:

241. Enplegua sustatzea.

Política de gasto 23.—Servicios sociales y promoción social

Se imputarán a esta política de gasto los llevados a cabo por la entidad para desarrollar la asistencia social especializada, la promoción de la igualdad de género, la promoción de la juventud, promoción y reinserción social de marginados, así como para la gestión de los servicios sociales; prestación de servicios a personas dependientes y de asistencia social; la atención a personas en situación o riesgo de exclusión social. También se incluirán las transferencias finalistas a entidades y familias que colaboren en la consecución de estos fines.

Se incluirán los gastos correspondientes a la administración general, que corresponderán a las actividades dirigidas a la planificación, coordinación, control, organización, gestión administrativa y desarrollo de funciones de apoyo de los distintos centros directivos que integran la política de gasto.

Se tipifican tres grupos de programas:

230. Administración general de servicios sociales.

231. Acción Social

232. Promoción Social

Política de gasto 24.—Fomento del empleo

Se imputan a esta política de gasto aquellos que tienen por objeto el fomento y promoción del empleo en acciones propias o en colaboración con otras administraciones públicas.

Se tipifica un grupo de programas:

241. Fomento del empleo.

3. gastu arloa.- Lehentasunezko ondasun publikoak ekoiztea

Arlo edo multzo honek hezkuntzarekin, kulturarekin, aisialdi eta astialdiarekin, kirolarekin eta, oro har, bizi kalitatea gehitu edo hobetzearekin zerikusia duten erakundearen gastuak ditu.

32. gastu-politika.- Hezkuntza

Gastu politika honetan herritarren bizikidetasuna sustatzeko gastu guztiak sartzen dira.

Administrazio orokorrari dagozkion programen multzoko gastuak sartuko dira. Horiek gastuaren politika osatzen duten zuzendaritza zentro ezberdinen plangintza, koordinazio, kontrol, antolaketa, administrazio kudeaketa eta laguntza-funtzioen garapenera bideratutako jarduerak dira.

Programa multzo bat tipifikatzen da:

327. Herritarren bizikidetasuna sustatzea.

33. gastu-politika.- Kultura

Gastu politika honen barruan izenak aipatzen dituen zerbitzuen ingurukoak sartzen dira, baita olgetarako direnak ere.

Administrazio orokorrari dagozkion programen multzoko gastuak sartuko dira. Horiek gastuaren politika osatzen duten zuzendaritza zentro ezberdinen plangintza, koordinazio, kontrol, antolaketa, administrazio kudeaketa eta laguntza-funtzioen garapenera bideratutako jarduerak dira.

Área de gasto 3.—Producción de bienes públicos de carácter preferente

Comprende esta área o grupo todos los gastos que realice la entidad en relación con la educación, cultura, con el ocio y el tiempo libre, deporte, y, en general, todos aquellos tendentes a la elevación o mejora de la calidad de vida.

Política de gasto 32.—Educación

Comprende esta política de gasto todos los gastos derivados del fomento de la convivencia ciudadana.

Los gastos incluidos en el grupo de programas de administración general corresponderán a actividades dirigidas a la planificación, coordinación, control, organización, gestión administrativa y desarrollo de funciones de apoyo de los distintos centros directivos que integran la política de gasto.

Se tipifica un grupo de programas:

327. Fomento de la convivencia ciudadana.

Política de gasto 33.—Cultura

Esta política de gasto comprende los originados por los servicios a que se refiere su denominación, incluso los de carácter recreativo.

Los gastos incluidos en el grupo de programas de administración general corresponderán a actividades dirigidas a la planificación, coordinación, control, organización, gestión administrativa y desarrollo de funciones de apoyo de los distintos centros directivos que integran la política de gasto.

EGITURAK
ESTRUCTURAS

Honako gastuak kontuan hartzen dira: liburutegiak, museoak, agiritegiak, kultur jarduerak, aisialdi eta astialdikoak sortu, kontserbatu eta funtzionatzea; erakusketa-aretoak, kongresuen jauregiak, musika-taldeak, olgeta-jarduerak, ondare historiko-artistikoa kontserbatu, sustatu eta kudeatzeko jarduerak eta bestelako olgeta eta kultur gastuak; euskara sustatzea eta jarduera horiek bultzatzeko orduan lankidetzan diharduten erakunde edo familiei transferentziak.

Sei programa multzo tipifikatzen dira eta zuzenean kultura eta aisialdiko zerbitzuei lotutako administrazioaren gastu orokorrak estaltzeko direnak bereizten dira.

330. Kulturaren administrazio orokorra.

332. Liburutegiak eta agiritegiak.

333. Kultur ekipamenduak eta museoak.

334. Kultur sustapena.

335. Euskara.

336. Ondare historiko-artistikoa babestu eta kudeatzea.

34. gastu-politika.- Kirola

Gastuaren politika honetan izenari buruzko zerbitzuek sortzen dituztenak sartzen dira, hala nola kirola sustatu eta hedatzea, kirolarekin zuzenean harremana duen jarduerarengatik gastuak edo tokiko erakundean kirol politikari dagozkionak.

Administrazio orokorrari dagozkion programen multzoko gastuak sartuko dira. Horiek gastuaren politika osatzen duten zuzendaritza zentro ezberdinen plangintza, koordinazio, kontrol, antolaketa, administrazio kudeaketa eta laguntza-funtzioen garapenera bideratutako jarduerak dira.

Se incluyen los gastos de creación, conservación y funcionamiento de las bibliotecas, museos, archivos, actividades culturales, de esparcimiento y tiempo libre; salas de exposiciones, palacios de congresos, agrupaciones musicales, actividades recreativas, actuaciones en orden a la conservación, promoción y gestión del patrimonio histórico-artístico y otros gastos recreativos y culturales; promoción del euskara; así como las transferencias a entidades o familias que colaboren en el fomento de estas actividades.

Se tipifican seis grupos de programas distinguiéndose aquellos que tienen por finalidad la cobertura de gastos generales de administración asociados directamente a los servicios de cultura y ocio:

330. Administración general de cultura.

332. Bibliotecas y archivos.

333. Equipamientos culturales y museos.

334. Promoción cultural.

335. Euskara

336. Protección y gestión del patrimonio histórico-artístico

Política de gasto 34.—Deporte

Esta política de gasto comprende los originados por los servicios a que se refiere su denominación, tales como promoción y difusión deportiva, gastos por cualquier actuación directamente relacionada con el deporte o la política deportiva de la respectiva entidad local.

Los gastos incluidos en el grupo de programas de administración general corresponderán a actividades dirigidas a la planificación, coordinación, control, organización, gestión administrativa y desarrollo de funciones de apoyo de los distintos centros directivos que integran la política de gasto.

EGITURAK
ESTRUCTURAS

Gastuaren politika honetan hiru programa multzo kontuan hartzen dira:

340. Kirolen administrazio orokorra.

341. Kirola sustatu eta bultzatzea.

342. Kirol instalazioak.

4. gastu arloa.- Jarduera ekonomikoak

Arlo honetan jarduera ekonomikoaren sektore desberdinen ahalmena garatzera bideratutako jardueren, zerbitzuen eta transferentzien gastuak sartzen dira.

Halaber, hurrengoetan gastuak daude: oinarrizko azpiegiturak eta garraioa, nekazaritza-azpiegiturak, komunikabideak, ikerketa, garapena eta berrikuntza.

41. gastu politika.- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrain-ustiapenaren jarduerak hobetu, sustatu eta antolatzeko gastuak sartzen dira.

Administrazio orokorrari dagozkion programen multzoko gastuak sartuko dira. Horiek gastuaren politika osatzen duten zuzendaritza zentro ezberdinen plangintza, koordinazio, kontrol, antolaketa, administrazio kudeaketa eta laguntza-funtzioen garapenera bideratutako jarduerak dira.

Hurrengo gastuak egotziko dira: sektorearen antolamendu planak, kooperatiba-mugimendua sustatzea eta elkarteak bultzatzea, nekazaritza eta elikadurako industriak piztea, enpresaburu gazteak prestatzea, nekazaritzarako hedapen zentroak eta bestelako antzekoak.

Se consideran en esta política de gasto, tres grupos de programas:

340. Administración general de deportes.

341. Promoción y fomento del deporte.

342. Instalaciones deportivas.

Área de gasto 4.—Actuaciones de carácter económico

Se integran en esta área los gastos de actividades, servicios y transferencias que tienden a desarrollar el potencial de los distintos sectores de la actividad económica.

Se incluirán también los gastos en infraestructuras básicas y de transportes; infraestructuras agrarias; comunicaciones; investigación, desarrollo e innovación.

Política de gasto 41.—Agricultura, ganadería y pesca

Comprende los gastos de toda índole destinados a la mejora, fomento y ordenación de las actividades agrícolas, ganaderas y piscícolas.

Los gastos incluidos en el grupo de programas de administración general corresponderán a actividades dirigidas a la planificación, coordinación, control, organización, gestión administrativa y desarrollo de funciones de apoyo de los distintos centros directivos que integran la política de gasto.

Se imputarán los gastos relativos a planes de ordenación del sector; fomento del movimiento cooperativo y promoción del asociacionismo; fomento de la industrialización agroalimentaria; formación de jóvenes empresarios; centros de extensión agraria y otros de igual naturaleza.

EGITURAK
ESTRUCTURAS

Gainera, izurriteak kontrolatu eta suntsiaraztearekin zerikusia duten gastuak sartuko dira, baita haziak eta abereak hobetu eta hautatzeko direnak ere eta bioteknologia zentroei, nekazaritza-ustiapen esperimentalei eta antzekoei dagozkienak.

Se incluirán, además, los gastos relacionados con el control y erradicación de plagas; mejora y selección de semillas y de ganados, centros de biotecnología; explotaciones experimentales agrícolas y otras de naturaleza similar.

Modu berean, honako gastuak barneratuko dira: nekazaritza, abeltzaintza, arrain-ustiapen edo ehizaren jardueretan oinarrizko azpiegiturak sortu, hobetu eta mantentzea, egiturak aldatu eta hobetzea, lurzoruak garbitu eta kontserbatzea nahiz antzeko izaera duten bestelakoak.

Asimismo comprende los gastos relacionados con la creación, mejora y mantenimiento de infraestructuras básicas en actividades agrícolas, ganaderas, piscícolas o cinegéticas; modificación y mejora de las estructuras; conservación y saneamiento de suelos y otras de naturaleza similar.

Bost programa multzo tipifikatzen dira:

Se tipifican cinco grupos de programas:

410. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren administrazio orokorra.

410. Administración general de agricultura, ganadería y pesca.

412. Nekazaritza eta abeltzaintzaren egiturak eta ekoizpen sistemak hobetzea.

412. Mejoras de las estructuras agropecuarias y de los sistemas productivos.

414. Landa garapena.

414. Desarrollo rural.

415. Arrantza baliabideak babestu eta garatzea.

415. Protección y desarrollo de los recursos pesqueros.

419. Bestelako jarduerak nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzan.

419. Otras actuaciones en agricultura, ganadería y pesca.

42. gastu politika.- Industria, energia eta teknologia berriak

Erakundearen ekintza eremuan industria sustatu, lagundu eta garatzera bideratutako gastuak sartzen dira.

Administrazio orokorrari dagozkion programen multzoko gastuak sartuko dira. Horiek gastuaren politika osatzen duten zuzendaritza zentro ezberdinen plangintza, koordinazio, kontrol, antolaketa, administrazio kudeaketa eta laguntza-funtzioen garapenera bideratutako jarduerak dira.

Política de gasto 42.—Industria, energía y nuevas tecnologías

Comprende los gastos de todo tipo destinados a la promoción, apoyo y desarrollo de la industria en el ámbito de acción de la entidad.

Los gastos incluidos en el grupo de programas de administración general corresponderán a actividades dirigidas a la planificación, coordinación, control, organización, gestión administrativa y desarrollo de funciones de apoyo de los distintos centros directivos que integran la política de gasto.

EGITURAK
ESTRUCTURAS

Gastuaren politika honi hurrengo gastuak egotziko zaizkio: enpresen kapitalean egindako inbertsioaren ondoriozkoak, enpresa ekintza sustatzea, birmoldatu eta berriz industrializatzeko laguntzak, industria enpresen elkarteak sor daitezen sustatzea eta beste transferentzia batzuk, helburu horietarako badira, baita industria kokapenerako pizgarriak ere.

Se imputarán a esta política de gasto los ocasionados con motivo de inversión en capital de empresas; fomento de la acción empresarial; ayudas para la reconversión y reindustrialización; fomento del asociacionismo de empresas industriales, y todo tipo de transferencias con destino a estos fines y de incentivos a la localización industrial.

Horrez gain, meatzaritzari (ikerketa, prestakuntza, merkaturatzea eta meatze-ekoizpenaren bestelako jarduerak) laguntzeko gastuak sartuko dira.

Se incluirán, además, los gastos relacionados con el apoyo a la minería, investigación, preparación, comercialización y otras actividades de la producción minera.

Halaber, gastuaren politika honi beste eragile batzuen transferentziak ere egotziko zaizkio, horretan aurrez ikusitako berezko jardueraren helburu zehatza badute.

También se imputarán a esta política de gasto las transferencias a otros agentes con el fin específico propio de las actividades que se contemplan en la misma.

Era berean, teknologia berriekin eta I+G+barekin zerikusia duten gastuak atxikiko dira, bestelako gastu politika berezietan ezin badaitezke egotz.

Así mismo, se imputarán los gastos relacionados con las nuevas tecnologías y con la I+D+i que no se pueda imputar en otras políticas de gasto específicas.

Hiru programa multzo tipifikatzen dira:

Se tipifican tres grupos de programas:

420. Industria eta energiaren administrazio orokorra.

420. Administración general de industria y energía.

422. Industria.

422. Industria.

423. Meatzaritza.

423. Minería.

425. Energia.

425. Energía.

426. Teknologia berriak eta bestelakoak.

426. Nuevas Tecnologías y otros.

<u>43. gastu politika.- Turismoa eta enpresa txikiak nahiz ertainak</u>

Administrazio orokorrari dagozkion programen multzoko gastuak sartuko dira. Horiek gastuaren politika osatzen duten zuzendaritza zentro ezberdinen plangintza, koordinazio, kontrol, antolaketa, administrazio kudeaketa eta laguntza-funtzioen garapenera bideratutako jarduerak dira.

<u>Política de gasto 43.—Turismo y pequeñas y medianas empresas</u>

Los gastos incluidos en el grupo de programas de administración general corresponderán a actividades dirigidas a la planificación, coordinación, control, organización, gestión administrativa y desarrollo de funciones de apoyo de los distintos centros directivos que integran la política de gasto.

EGITURAK
ESTRUCTURAS

Turismoaren garapenari eta sustapenari lotutako edozein gastu sartuko da.

Azkenik, gastuaren politika honetan enpresa txikiak eta ertainak garatzera bideratutakoak kontuan hartuko dira.

Lau programa multzo tipifikatzen dira:

430. Merkataritza, turismo eta enpresa txiki nahiz ertainen administrazio orokorra.

432. Informazio eta sustapen turistikoa.

433. Enpresa-garapena.

439. Sektorearen bestelako jarduerak.

Se incluirán los gastos de cualquier naturaleza asociados al desarrollo y fomento del turismo.

Por último, se incluirán en esta política de gasto los destinados al desarrollo de las pequeñas y medianas empresas.

Se tipifican cuatro grupos de programas:

430. Administración general de comercio, turismo y pequeñas y medianas empresas.

432. Información y promoción turística.

433. Desarrollo empresarial.

439. Otras actuaciones sectoriales.

44. gastu politika.- Herri garraioa

Herrien arteko herri-garraioaren zerbitzua mantendu, garatu eta finantzatzera erakundeak bere kargura dituen gastuak sartuko dira.

Administrazio orokorrari dagozkion programen multzoko gastuak sartuko dira. Horiek gastuaren politika osatzen duten zuzendaritza zentro ezberdinen plangintza, koordinazio, kontrol, antolaketa, administrazio kudeaketa eta laguntza-funtzioen garapenera bideratutako jarduerak dira.

Gastuaren politika honi azpiegiturak sortu, hobetu eta mantentzeko inbertsio guztiak, baita herrien arteko garraioa mantendu eta ikuskatzeko direnak ere aplikatuko zaizkio.

Hiru programa multzo tipifikatzen dira:

440. Garraioaren administrazio orokorra.

441. Bidaiarien garraioa.

442. Garraioaren azpiegiturak.

Política de gasto 44.—Transporte público

Se incluirán los gastos a cargo de la entidad destinados al mantenimiento, desarrollo y financiación del servicio de transporte público interurbano.

Los gastos incluidos en el grupo de programas de administración general corresponderán a actividades dirigidas a la planificación, coordinación, control, organización, gestión administrativa y desarrollo de funciones de apoyo de los distintos centros directivos que integran la política de gasto.

Se aplicarán a esta política de gasto, todos los de inversión destinados a la creación, mejora y mantenimiento de infraestructuras y al mantenimiento y supervisión del transporte interurbano.

Se tipifican tres grupos de programas:

440. Administración general del transporte.

441. Transporte de personas viajeras.

442. Infraestructuras del transporte.

EGITURAK
ESTRUCTURAS

45. gastu-politika.- Azpiegiturak

Oinarrizko azpiegiturak sortu, hobetu eta mantentzera bideratutako gastuak ditu, aurreko gastuaren politiketan sartu ez badira.

Administrazio orokorrari dagozkion programen multzoko gastuak sartuko dira. Horiek gastuaren politika osatzen duten zuzendaritza zentro ezberdinen plangintza, koordinazio, kontrol, antolaketa, administrazio kudeaketa eta laguntza-funtzioen garapenera bideratutako jarduerak dira.

Gastuaren politika honi inbertsioari buruzko guztiak aplikatuko zaizkio, foruaren errepideak eta bere titulartasuneko beste azpiegitura batzuk eraiki, hobetu eta mantentzeko badira. Halaber, aurrekoekiko datu osagarriak sartuko dira.

Bost programa-multzo tipifikatzen dira eta gastuaren politika honetan aipatzen diren azpiegiturak izanik, zuzenean administrazioaren gastu orokorrak estaltzeko direnak bereizten dira.

450. Azpiegituren administrazio orokorra.

452. Baliabide hidraulikoak.

453. Errepideak.

456. Ingurumen-jarduerak.

459. Bestelako azpiegiturak.

46. gastu politika.- Ikerketa, garapena eta berrikuntza

Oinarrizko ikerketara eta aplikatura bideratutako administrazio, azpiegitura, funtzionamendu eta laguntzaren gastuak ditu, baita beste eragile batzuei helburu horrekin transferentziak ere.

Política de gasto 45.—Infraestructuras

Comprende los gastos de toda índole tendentes a la creación, mejora y mantenimiento de las infraestructuras básicas no incluidas en políticas de gasto anteriores.

Los gastos incluidos en el grupo de programas de administración general corresponderán a actividades dirigidas a la planificación, coordinación, control, organización, gestión administrativa y desarrollo de funciones de apoyo de los distintos centros directivos que integran la política de gasto.

Se aplicarán, a esta política de gasto, todos los de inversión destinados a la construcción, mejora y mantenimiento de carreteras forales y otras infraestructuras de titularidad foral, y otros gastos complementarios de los anteriores.

Se tipifican cinco grupos de programas, distinguiéndose aquellos que tienen por finalidad la cobertura de gastos generales de administración asociados directamente a las infraestructuras a las que se refiere la presente política de gasto:

450. Administración general de infraestructuras.

452. Recursos hidráulicos.

453. Carreteras.

456. Actuaciones Medioambientales

459. Otras infraestructuras.

Política de gasto 46.—Investigación, desarrollo e innovación

Comprende los gastos de administración, infraestructuras, funcionamiento y apoyo destinados a la investigación básica y aplicada, incluso las transferencias a otros agentes con esta finalidad.

EGITURAK
ESTRUCTURAS

Gastuaren politika honi zientzia ezagutza puruak sustatzera bideratutako jarduerei dagozkionak egotziko zaizkio, baita helburu praktikoak, bereziak edo zehatzak dituztenak ere, beste gastu politika bati aplikatzea ezinezkoa bada.

Bi programa multzo tipifikatzen dira:

462. Zerbitzu publikoekin zerikusia duten ikerketa eta azterketak.

463. Zientzia ikerketa, teknikoa eta aplikatua.

49. gastu politika.- Bestelako jarduera ekonomikoak

Informazioaren gizartean telekomunikazioaren zerbitzuak kudeatu, funtzionatu, lagundu, hornitu eta sustatzeko gastuak sartzen dira, baita ondorengoak ere: ezagutza kudeatzea eta antzekoak, komunikabideak, ikus-entzunezkoen programak ekoitzi eta hedatzea, administrazio elektronikoa eta helburu horiek betetzeko beste eragile batzuei transferitzea.

Bi programa multzo tipifikatzen dira:

491. Informazioaren gizartea.

492. Ezagutzaren kudeaketa.

9. gastu arloa.- Jarduera orokorrak

Arlo honetan gastuak sartzen dira, orokorrean erakundeari eragiten badizkiote eta administrazio-laguntzaren edo gobernu-funtzioen eginkizunetarako badira, erakunde guztiarentzat euskarri logiko eta teknikoa izateaz gain.

Erakundearen gastu orokorrak kontuan hartuko ditu, programen araberako sailkapen honetatik abiatuta, beste arlo bati zuzenean ezin bazaizkio egotzi edo aplikatu.

Se imputarán a esta política de gasto los relativos a actividades dirigidas al fomento de los conocimientos científicos puros y aquellos con objetivos prácticos, específicos o concretos y que no puedan aplicarse a ninguna otra política de gasto.

Se tipifican dos grupos de programas:

462. Investigación y estudios relacionados con los servicios públicos.

463. Investigación científica, técnica y aplicada.

Política de gasto 49.—Otras actuaciones de carácter económico

Comprende los gastos de gestión, funcionamiento, apoyo, suministro y promoción de los servicios de telecomunicaciones, de la Sociedad de la Información, de la gestión del conocimiento y otros de naturaleza análoga; medios de comunicación, producción y difusión de programas audiovisuales, administración electrónica, así como las transferencias a otros agentes para el cumplimiento de estos fines.

Se tipifican dos grupos de programas:

491. Sociedad de la información.

492. Gestión del conocimiento.

Área de gasto 9.—Actuaciones de carácter general

Se incluyen en esta área los gastos relativos a actividades que afecten, con carácter general, a la entidad, y que consistan en el ejercicio de funciones de gobierno o de apoyo administrativo y de soporte lógico y técnico a toda la organización.

Recogerá los gastos generales de la entidad, que no puedan ser imputados ni aplicados directamente a otra área de las previstas en esta clasificación por programas.

EGITURAK
ESTRUCTURAS

Arlo honetan transferentzia orokorrak sartuko dira, programen araberako sailkapen honetan beste epigrafe bati aplikatzea ezinezkoa bada. Bestela, dagokion gastu politika bereziari egotziko zaizkio.

91. gastu politika.- Gobernu organoak

Erakundearen gobernu-organoak eratu eta funtzionatzeko gastuei eta horiek ordezkatzekoei dagozkie.

Bi programa multzo tipifikatzen dira:

911. Goi-mailako zuzendaritza

912. Beste gobernu organo batzuk.

92. gastu politika.- Jarduera orokorrak

Erakundearen gainerako guztiei laguntzeko edo zerbitzatzeko zerbitzuen gastuak sartzen dira.

Beraz, gastuaren politika honi hurrengo gastuak egotziko zaizkio: bulego eta instalazio orokorrak; informazioa, argitalpenak, erregistroa eta harremanak; barneko garapen eta euskarri informatikoak; koordinazio eta kontrol orokorra: agiritegia, antolaketa eta metodoak, arrazionalizazioa eta mekanizazioa; langileen administrazioa; hauteskundeak; herritarren arreta eta partaidetza; ibilgailuak, zerbitzu zehatzei atxikitako ibilgailuak kanpo (horiek dagokion epigrafean sartuko dira) eta erakundearen interesak aholkatu eta defendatzea.

Gastuaren politika horrek tokiko erakundearen zerbitzu ezberdinei buruzko oinarrizko informazio orokorra eta serie estatistikoak egitearekin zerikusia duten jardueren ondoriozkoak barneratuko ditu.

Era berean, azterketa kabineteei eta informazio nahiz dokumentazio orokorrari buruzko gastuak egotziko dira.

Se incluirán en esta área las transferencias de carácter general que no puedan ser aplicadas a ningún otro epígrafe de esta clasificación por programas, ya que en caso contrario se imputarán en la política de gasto específica que corresponda.

Política de gasto 91.—Órganos de gobierno

Comprende los gastos relativos a la constitución y funcionamiento de los órganos de gobierno de la entidad y de representación de los mismos.

Se tipifican dos grupos de programas:

911. Alta Dirección

912. Órganos de gobierno.

Política de gasto 92.—Servicios de carácter general

Comprende los gastos de aquellos servicios que sirven o apoyan a todos los demás de la entidad.

Se imputarán, por tanto, a esta política de gasto los de oficina y dependencias generales; información, publicaciones, registro y relaciones; desarrollos y soportes informáticos de carácter interno; coordinación y control general: archivo, organización y métodos, racionalización y mecanización; administración de personal; elecciones; atención y participación ciudadana, parque móvil, con exclusión de los vehículos afectados a servicios determinados que se imputarán a la correspondiente rúbrica y gastos de asesoramiento y defensa de los intereses de la entidad.

Esta política de gasto integrará los derivados de actividades relacionadas con la elaboración de información básica de carácter general y series estadísticas sobre los distintos servicios de la entidad local.

Se imputarán, asimismo, los gastos referentes a gabinetes de estudio e información y documentación de carácter general.

EGITURAK
ESTRUCTURAS

Zazpi programa multzo tipifikatzen dira:

920. Administrazio orokorra.

922. Tokiko erakundeen koordinazioa eta antolaketa.

923. Oinarrizko informazioa eta estatistikoa.

924. Herritarren partaidetza.

925. Herritarrekiko arreta.

926. Barneko jakinarazpenak.

929. Ustekabeak eta sailkatu gabeko funtzioak.

"Ustekabeak eta sailkatu gabeko funtzioak" programen multzoan kreditu orokorrerako hornidura sartuko da, baita eskumenekoak ez diren beharrei erreparatzeko hornidura ere, hasieran onartutako aurrekontuan aurrez ikusiak ez badaude, baina ekitaldian zehar sortzen badira.

93. gastu politika.- Finantza eta zerga administrazioa

Gastuaren politika honek erakundearen finantza-administrazioari dagozkion gastu guztiak ditu.

Hurrengoak egotziko dira: ekonomia eta ogasunaren zerbitzuei buruzko datu orokorrak; plangintza nahiz aurrekontuak eta zergak; barneko kontrola eta kontabilitatea nahiz kontu orokorrak; diruzaintzaren kudeaketa; ondarearen kudeaketa, ondare kontabilitatea eta kontuen berri ematea; zergak kudeatu, ikuskatu eta biltzea, zerga-erroldak eratu eta eguneratzea; erreklamazio ekonomiko-administratiboak ebazteko organoak eta erakundearen jarduera ekonomikoarekin nahiz finantzarioarekin zerikusia duten bestelako gastuak.

Halaber, erabilera anitzerako eraikin ofizialak eraiki, hobetu eta kontserbatzeko (lursailak erostea barne) gastuak sartzen dira.

Se tipifican siete grupos de programas:

920. Administración general.

922. Coordinación y organización institucional de las entidades locales.

923. Información básica y estadística.

924. Participación ciudadana.

925. Atención a los ciudadanos.

926. Comunicaciones internas.

929. Imprevistos y funciones no clasificadas.

Dentro del grupo de programas Imprevistos y funciones no clasificadas se incluirá la dotación para el crédito global, así como la dotación para atender necesidades de carácter no discrecional y no previstas en el presupuesto inicialmente aprobado, que puedan presentarse a lo largo del ejercicio.

Política de gasto 93.—Administración financiera y tributaria

Comprende esta política de gasto todos los gastos correspondientes a la administración financiera de la entidad.

Se imputarán los gastos generales de los servicios de economía y hacienda; planificación y presupuestos y fiscalidad; control interno y contabilidad y cuentas generales; gestión de la tesorería; gestión del patrimonio, contabilidad patrimonial y rendición de cuentas; gestión, inspección y recaudación de tributos, formación y actualización de padrones fiscales; órganos de resolución de reclamaciones económico-administrativas y otros gastos relacionados con la actividad económica y financiera de la entidad.

Asimismo se incluyen los gastos referentes a la construcción, mejora y conservación, incluida la adquisición de terrenos, de edificios oficiales de uso múltiple.

EGITURAK
ESTRUCTURAS

Lau programa multzo tipifikatzen dira:

931. Ekonomia eta zerga politika

932. Zerga sistema kudeatzea.

933. Ondarea kudeatzea.

934. Zorra eta diruzaintza kudeatzea.

94. gastu politika.- Transferentziak beste herri administrazio batzuei

Gastuaren politika honetan transferentzia orokorrak sartuko dira, programen araberako sailkapen honetan beste epigrafe bati aplikatzea ezinezkoa bada. Bestela, jarduera finantzatua dagokion gastu politikari egotziko zaio.

Lau programa multzo tipifikatzen dira eragile hartzailearen arabera.

941. Transferentziak Autonomia Erkidegoari.

942. Transferentziak udalerri, mankomunitate eta partzuergoei.

943. Transferentziak beste tokiko erakunde batzuei.

944. Transferentziak Estatuko Administrazio Orokorrari.

0 gastu arloa.- Zor publikoa

Zor publikoaren eta antzeko gainerako finantza-eragiketen interes-tasari eta amortizazioari dagozkion gastuak sartzen dira, legeztatzeak eskatzen dituen gastuak baztertuta.

Arlo honi tokiko erakundeen finantza zamari, amortizazioari eta interes-tasari erantzutera bideratutako gastuak egotziko zaizkio, kontratatutako kreditu-eragiketen ondoriozkoak badira. Kontratuak legeztatzeko gastuak 93. gastu politikara, 934 programen multzora, eramango dira.

Se tipifican cuatro grupos de programas:

931. Política económica y fiscal

932. Gestión del sistema tributario.

933. Gestión del patrimonio.

934. Gestión de la deuda y de la tesorería.

Política de gasto 94.—Transferencias a otras administraciones públicas

Se imputarán a esta política de gasto las transferencias de carácter general que no puedan ser aplicadas a ningún otro epígrafe de esta clasificación por programas, ya que en caso contrario se imputarán a la política de gasto que corresponda a la actividad financiada.

Se tipifican cuatro grupos de programas en razón del agente receptor de la misma.

941. Transferencias a la comunidad autónoma.

942. Transferencias a municipios, mancomunidades y consorcios.

943. Transferencias a otras entidades locales.

944. Transferencias a la Administración General del Estado.

Área de gasto 0.—Deuda pública

Comprende los gastos de intereses y amortización de la deuda pública y demás operaciones financieras de naturaleza análoga, con exclusión de los gastos que ocasione la formalización de las mismas.

Se imputarán a esta área los gastos destinados a atender la carga financiera de la entidad local, amortización e intereses, derivados de las operaciones de crédito contratadas. Los gastos de formalización de los correspondientes contratos se llevarán a la política de gasto 93, grupo de programas 934.

EGITURAK
ESTRUCTURAS

01. gastu politika.- Zor publikoa

Programa multzo bakarra tipifikatzen da:

011. Zor publikoa.

Política de gasto 01.—Deuda pública

Se tipifica un solo grupo de programas:

011. Deuda pública.